

HEZKUNTZA PROGRAMA LH

Gatz Haranaren bidez zientzia ezagutu



Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

© AÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOA
FUNDACIÓN VALLE SALADO DE AÑANA



Gatz Haranaren zientzia ikasgelan

Zientzia leku guztietan dago. Premisa erraz honetatik abiatuta, Gatz Harana Fundazioak Vital Fundazioarekin elkarlanean, ikasgeletara hezkuntza edukiak eramatea helburu duen pres-takuntza programa bat prestatu du. Helburua, UPV/EHUk munduan aire zabalean dagoen ikerketa-laboregirik garrantzitsuenetakotzat jotzen duen ingurune zientifiko, kultural eta natural paregabean, urteetan metatutako esperientzia partekatzea da, zientziaren arlo askotan dituen ahalmen handiengatik.

Aintzatespen garrantzitsuenekin saritutako hogeituro urteko lan handiaren ondoren, berreskuratze proiektuak historia, arkitektura, arkeologia, paisaia, geologia, biodibertsitatea eta ingurumena balioestea lortu du, gizarteari interes handiko hainbat gai igorri ahal izateko leku aproposa izanik.

Hasiera-hasieratik saiatu gara berreskuratze eta ikasketa lanak ezagueren hedapenarekin uztartzen, eta eskola-taldean kasuan, urte luzez adin guztietara egokitutako ibilbide didaktiko eta parte-hartzaileak egin ditugu. Honekin batera hainbat ikaskuntza-laboretegi garatu ditugu, hala nola gatz-dastatzeak edota gatz-egile tailerrak, non adin guztietako neska mutikoei produktu tradizionalak eta gatz-egileen lanbidea bereizten ikasi ahal izan dute.

Gatz Haranak askotariko esperientziak lantzeko duen izaeran oinarritutako hezkuntza-lan honen arrakasta datuetan islatzen da: soilik azken bost urteetan 50 000 ikaslek gozatu dute gure aire zabaleko jardueraz. Hala ere, Covid-19ak sortutako egungo krisiak erabateko eragina izan du ikasleen artean, parte-hartze eta talde-balioak sustatzeko balio duten zuzeneko esperientziak alde batera utzita.

Programa didaktikoak hutsune horiei aurre egin nahi die, haurren irakaskuntza modu erabat seguruan osatuko duten hezkuntza-esperientziak sustatuz, Gatz Haranaren bidez, zientzia ikuspuntu ezberdinetatik

bizitzera eramango dituen egitarau dibertigarri batekin: geologia, kimika, fisika, paleontologia, historia, gastronomia, osasuna, etab.

Horretarako, gai horiek lantzeko tailerlean oinarritutako metodologia erabiltzen duten unitate didaktikoak diseinatu ditugu, ikastetxeek beren eguneroko hezkuntza-jardueran garatzen dituzten edukiak osatzeko.

Gastronomia osasungarria, paleontologia, ohiko lanbideak, naturaren zientziak, osasuna eta giza gorputza dira taldeka segurtasun osoz lantzeko proposatzen ditugun gaiak.

Gure gatz-alea jakintza-pilula gisa jarri nahi dugu, talde-lan ikertzailea, ekimen eta iraunkortasun izaera, malgutasun intelektuala eta ikaslearen gogoetarako eta kritikarako gaitasuna pizteko, bai eta argudioen bitartez ideiak eztabaidatzean besteen iritziekiko errespetua sustatzeko ere.

Unitate didaktiko bakoitza etxean edo gelan bertan egin daitezkeen jarduerekin osatzen da, eta erronka bat proposatzen du edukiak indartu eta jarduera tailerren iraupenetik harago hedatzeko.

Material guztiak barne daude, erronkak gauzatzeko beharrezkoak izan daitezkeenak izan ezik.



GASTRONOMIA OSASUNGARRIA

Unitate didaktiko honek gastronomia osasungarriarekin lotutako edukiak garatzen ditu gatz-dastatze dibertigarri baten bidez. Dastatze honetan, ikasleek zentzumenak erabiltzen dituzte zentzumen-gaitasunez jabetzeko eta hauek jakien ezaugarri gastronomikoak esperimentatzeko eta interpretatzeko duten garrantziaz ohartzeko.

HELBURUAK

Produktu naturalek giza osasunarentzat duten garrantziari eta onurei buruzko ezagutzak eskuratzea.

Zentzumenen erabilera sustatzea elikagaien ezaugarri gastronomikoak interpretatzeko.

Gatzaren jatorria munduan ezagutzea eta artisau-gatza eta gatz industrialia bereiztea.

Jasotako informazioa jardueren praktikoaren bidez barnertzea.

EDUKIAK

Artisau-ekoizpen natural eta jasangarriek gizakiarentzat dituzten onurak.

Artisau-produktuak VS industria-produktuak: Añanako Gatz Haraneko gatzaren adibidea.

Zentzumenak (ukimena, usaimena, ikusmena, dastamena, entzumena), inguratzen gaituen mundua ezagutzeko bide gisa.

Gatz-dastatzea osasungarriak diren produktu artisauak karakterizatzen ariketa gisa.

BALOREAK

Bizi-kalitatea eta osasuna: jasangarritasuna elikagaien ekoizpenean, kalitatea eta gure osasunean duen eragina.

Ingurumenarekiko sentsibilizazioa: kontsumo-ohiturak, gure planeta eta landa-ingurunearen zaintza.

Pentsamendu kritikoa eta sortzailea: gastronomiarekin lotutako ezaugarriak interpretatzea ahalbidetzen duten zentzumen-gaitasunen garapena.



NORI ZUZENDATUTA DAGO: LH maila guztiak.

IRAUPENA: 60 minutu.

HIZKUNTZAK: euskara eta gaztelania.

PREZIOA Gatz Haranean: 80€

Ikastetxeetan bakarrik Araban: 90€*

*Kontsulta itzazu joan-etorrietako gastuak kontratatutako tailer kopuruaren arabera.



IRAGANEKO AZTARNAK

Unitate didaktiko honek paleontologiaren zientziarekin lotutako edukiak garatzen ditu, bai eta espezieek denboran eta espazioan izan duten bilakaera ezagutzeko duten garrantziarekin lotutakoak ere. Tailer-erean oinarritutako metodologiaren bidez aztarna bat sortuko dugu materialak molde batean inprimatuz, paleontologo baten lana aztertzen dugun bitartean.

HELBURUAK

Lurra iraganean populatu zuten izaki organikoekin lotutako fosilen azterketari buruzko oinarritzko ezagutzak eskuratzea.

Paleontologia bezalako diziplina zientifikoen ezagutza sustatzea eta arkeologia bezalako beste diziplina batzuetatik bereiztea.

Ondare historikoa, kulturala eta naturala ezagutzea eta balioestea.

Jasotako informazioa jardueraren praktikoaren bidez barnertzea.

EDUKIAK

Oinarritzko denbora-kontzeptuak: iragana eta oraina. Oinarritzko kontzeptuak paleontologian eta geologian: Fosilizazio prozesua.

Ikniten esanahia eta garrantzia: Gesaltza Añanako aztarnegiaren adibidea.

Talde-lana, ikasteko prozesu eta metodo gisa.

Ondare historiko, kultural eta naturalaren zaintza eta erantzukizuna.

BALOREAK

Kultura zientifikoa: zehaztasun metodikoaren bidez zientziaren eremura hurbiltzen laguntzen da, garapen pertsonala eta soziala hobetuz.

Pentsamendu kritikoa eta sortzailea: haurren gaitasun sortzailea eta kritikoa sustatzea.

Erantzukizuna eta errespetua: taldean eginiko ikerketa lana estimatzea.

Naturarekiko sentsibiltatea: ingurumenarekiko eta haren kontserbazioarekiko interesa.



NORI ZUZENDATUTA DAGO: LH maila guztiak.

IRAUPENA: 60 minutu.

HIZKUNTZAK: euskara eta gaztelania.

PREZIOA Gatz Haranean: 65€

Ikastetxeetan bakarrik Araban: 80€*

*Kontsulta itzazu joan-etorrietako gastuak kontratatutako tailer kopuruaren arabera.



NATURAREN ZIENTZIAK

Unitate didaktiko honek ingurumena ezagutzeko funtsezkoak diren geologiarekin eta biodibertsitate halofiloarekin lotutako edukiak garatzen ditu. Tailerrean oinarritutako metodologiaren bidez ikasleek iragazkortasunaren kontzeptuarekin esperimendatuko dute natur zientzien testuinguruan.

HELBURUAK

Lurraren eta bertako biztanleen konposizio, egitura eta dinamikarekin lotutako kontzeptu fisikoei buruzko oinarritzko ezagutzak eskuratzea.

Natur zientziekin lotutako diziplinen ezagutza sustatzea. Laborategiko lan zientifikoa deskubritzea.

Jasotako informazioa jarduerara praktikoen bidez barnertzea

EDUKIAK

Iragazkortasunaren kontzeptua. Lurzoruaren konposizioa. Sedimentuak granulometria bidez sailkatzea.

Ingurumenari egokitutako biodibertsitate halofiloa.

Material iragazgaitzen erabilerara gatza egiteko arkitekturen.

Laborategiko materiala erabiltzea.

BALOREAK

Kultura zientifikoa eta teknologikoa: pentsamendu zientifikoa behaketaren, pertzepzioaren eta esperimendazioaren bidez garatzea.

Pentsamendu kritikoa eta sortzailea: epe luzeko ikaskuntzan lagunduko duen ikaskuntza enpirikoa.

Erantzukizuna eta errespetua: taldean eginiko ikerketa lana estimatzea.

Naturarekiko sentsibiltatea: ingurumenarekiko eta haren kontserbazioarekiko interesa.



NORI ZUZENDATUTA DAGO: LH 4. 5. eta 6. mailak.

IRAUPENA: 60 minutu.

HIZKUNTZAK: euskara eta gaztelania.

PREZIOA Gatz Haranean: 75€

Ikastetxeetan bakarrik Araban: 90€*

*Kontsulta itzazu joan-etorrietako gastuak kontratatutako tailer kopuruaren arabera.



OHIKO LANBIDEAK

Unitate didaktiko honek ohiko lanbideen gaia garatzen du, eta taile-rreran oinarritutako metodologia erabiltzen du bi esperimentu egiteko. Esperimentu horien bidez, ikasleek disolbagarritasun, flotagarritasun eta lurrunketa kontzeptuak landuko dituzte, artisau-lanbide horien garrantziaz eta ondare historiko, kultural eta naturalaren zaintzarekin duten harremanaz jabetzen diren bitartean.

HELBURUAK

Artisau-lanbide tradizionalekin lotutako oinarritzko eza-gutzak eskuratzea.

Eskulan jasagarrien bidez eskuratutako tradiziozko jakiturian oinarritutako sentsibilizazioa sustatzea.

Lurruntzearen kontzeptua ezagutzeko gatzaren ekoizpen artisauaren bidez.

Jasotako informazioa jardueran praktikoaren bidez barnerat-

EDUKIAK

Artisauen lanbideei buruzko oinarritzko kontzeptuak: gatz-egilearen adibidea.

Flotagarritasunaren eta disolbagarritasunaren kontzeptu zientifikoak gatzaren ekoizpen artisauaren bidez azalduta.

Artisau-lanbideetako metodo eta material jasagarriak.

Ondare historiko, kultural eta naturalaren zaintza eta eran-

BALOREAK

Historiarekiko sentsibilitatea: Ondare historiko eta kulturekiko interesa.

Kultura zientifikoa eta teknologikoa: ikasleek gaitasun zientifikoekiko duten interesa eta motibazioa, garapen pertsonala eta soziala hobetuz.

Erantzukizuna eta errespetua: komunikazioa, lankidetzeta eta sentsibilitatea bezalako gizarte-trebetasunak garatzea.



NORI ZUZENDATUTA DAGO: LH 3. 4. 5. eta 6. mailak.

IRAUPENA: 60 minutu.

HIZKUNTZAK: euskara eta gaztelania.

PREZIOA Gatz Haranean: 65€
Ikastetxeetan bakarrik Araban: 80€*

*Kontsulta itzazu joan-etorrietako gastuak kontratatutako tailer kopuruaren arabera.



OSASUNA ETA GIZA GORPUTZA

Unitate didaktiko honek osasunaren eta giza gorputzaren gaiarekin lotutako edukiak garatzen ditu, eta tailerrean oinarritutako metodologia erabiltzen du, esperimentuen bidez, fluidoen erregulazioa eta hidratazioaren eta deshidratazioaren bezalako fenomeno biologikoak lantzeko.

HELBURUAK

Gatzak giza osasunean eta gorputzean duen eraginari buruzko oinarritzko ezagutzak eskuratzea.

Giza gorputzaren funtzionamendu-mekanismoak ezagutzeko jakin-mina sustatzea.

Likidoak erregulatzeko prozesu biologikoak deskribitzea.

Jasotako informazioa jardueren praktikoaren bidez barnertzea.

EDUKIAK

Gatzaren jatorria Lurrean eta gatzaren erabilera-aniztasuna.

Gatzak giza gorputzarekin duen harremana.

Hidratazio eta deshidratazioaren kontzeptua.


Gatza elektrolito gisa: energia elektrikoa sortzea gatz-disoluzio batetik abiatuta.

BALOREAK

Naturarekiko sentzibiltatea: ikasleak natura-ingurunea ezagutzeko interesa eta motibazioa izatea.

Bizi-kalitatea eta osasuna: giza gorputza, bere oreka eta beharrezko zaintza osasungarriak ezagutzeko.

Kultura zientifikoa eta teknologikoa: zientzia eguneroko fenomeno naturalak azaltzeko tresna gisa.



NORI ZUZENDATUTA DAGO: LH 5. eta 6. mailak.

IRAUPENA: 60 minutu.

HIZKUNTZAK: euskara eta gaztelania.

PREZIOA Gatz Haranean: 65€

Ikastetxeetan bakarrik Araban: 85€*

*Kontsulta itzazu joan-etorrietako gastuak kontratatutako tailer kopuruaren arabera.

eta gainera...

Gatz Harana urte osoan zehar bisitatu daiteke, ikasgeletako esperientzia aurrez aurre osatzeko. Bisitatzeko hainbat aukera daude, edukia adin guztietara egokitzen da eta bisitak 4 hizkuntzatan egiten dira: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez.

BISITA OROKORRA

Bisitan gatzaren erabilerak ezagutuko ditugu, ur-gaziaren jatorria ulertuko dugu, eta gaur egun eta historian zehar gatz nola ekoizten den ikusiko dugu. Berreskuratze prozesua bertatik bertara ezagutuko dugu, eta ingurugiro gazi horretan sortzen den fauna eta landaretza berezia ikusiko ditugu.

NORI ZUZENDUTA DAGO: LH eta DBHko maila guztiak.

IRAUPENA: Ordu bete.

PREZIOA: 50 € taldeko

INGURUGIRO BISITA

Ibilbide honetan Gatz Haraneko kultura eta ingurumen-balioak ikasiko ditugu. Iturburu gaziak bisitatuko ditugu, ingurugiro gaziko landaretza eta fauna ikusi eta identifikatuko dugu, eta paisaia paregabe honen jasagarritasunaz jabetuko gara.

NORI ZUZENDUTA DAGO: LH 5. eta 6. mailak eta DBH maila guztiak.

IRAUPENA: Ordu bat eta erdi

PREZIOA: 60 € taldeko



SPA GAZIA

Jarduera hau apirilaren hasieratik urriaren erdialdera egiten da. Oinak eta eskuak ur-gazian murgiltzean datza, antzinako gatz-egileek gatz ekoizten zutenean hartzen zituzten bainuak gogora ekarriz. Añanako ur-gaziak onura handiak ditu osasunerako.

NORI ZUZENDUTA DAGO: Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako maila guztiak.

IRAUPENA: Mugagabea

PREZIOA: Bisita gidatuaren baitan

GATZA EGITEKO TAILERRA

Jarduera hau maiatzaren erdialdetik urriaren erdialdera egiten da. Gatzaren artisaueko izpena bertatik bertara esperimintatzea da helburua. Benetan gazia den jarduerarekin gozatuko dugu, talde-lana eta lankidetzaz bul-tzatuz.

NORI ZUZENDUTA DAGO: Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako maila guztiak.

IRAUPENA: Ordu bete

PREZIOA: 65 € taldeko

AUKERA KONBINATUA: bisita orokorra+ gatz ekoizteko tailerra.

IRAUPENA: Ordu bat eta erdi (45 minutu jarduerako)

PREZIOA: 85 € taldeko



Añanako Gatz Harana Bisitarien Harrera-Gunea



945 35 11 11



reservas@vallesalado.eus



© AÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOA
FUNDACIÓN VALLE SALADO DE AÑANA

Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA